

Usurbilgo Udala

2019KO APIRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Kontu-hartzailea: Pedro Etxarri Ollokiegi.

Ezin-etorria adierazi du: Josune Urkola Larrarte.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.


Usurbilen, 2019ko apirilaren 30ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2019/03/28.

Batzarkideek, 2019ko martxoaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO MARTXOAREN 25ETIK APIRILAREN 17RA (2019/0294-2019/0389).



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2019ko martxoaren 25etik apirilaren 17ra bitartean (2019/0294–2019/0389) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Alkateak dekretu horien artean bat nabarmendu nahi izan du, 2018ko kontuen likidazioa, hain zuzen ere. Kontu-hartzailea batzarrean denez, hitza eman dio azalpenak eman ditzan.

Pedro Etxarri kontu-hartzaileak, alde batetik, azpimarratu nahi izan du likidazioarekin aurrera egiteko izan dituen zailtasunak. Bestetik, adierazi du dekretuak hiru zati dituela:

- diruzaintza gerakina, udalarentzat oso garrantzitsua den ratioa edo udalak daukan altxorra. 2.175.000 eurokoa dela zehaztu du eta horietatik 2018ko gastuak 2019ra pasatzeko eta ordaindu ahal izateko 1.115.000 euro erabiliko direla esan du. Beraz, 1.500.000 euroko soberakina geratuko dela zehaztu du.

- aurrekontuaren emaitza, honek konparatzen dituela esan du 2018ko aurrekontuaren emaitza eta aurreko urteko emaitzak ere. Aurtengo aurrekontuaren emaitza positiboa dela esan du, 1.400.000 eurokoa eta aurreko ekitaldietako konparaketan 17.000 euroko galera.

- kreditu gerakina, hau dela dio hurrengo urtera inkorporatzea posible den gerakina. Lehen komentatu bezala, 1.115.000 euro inkorporatuko direla zehaztu du.

Legeak markatzen duen bezala, dekretua onartu ondoren, lehenengo plenoan honen berri eman behar da eta Foru Aldundiari jakinarazi behar zaio.

Honen ondorioa dela esan du Kontu Orokorrak aurkeztea, horretarako epea maiatzaren 15a dela eta, beraz, Ogasun batzorde berezi bat egin beharko dela jakinarazi du. Ondoren, uztailaren 31a baino lehen onartu edo kontuak eman beharko liratekeela esan du.


Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2019KO MAIATZAREN 26AN OSPATUKO DIREN HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

CONOCE aplikazio informatikoa erabiliz, 2019ko maiatzaren 26an izango diren Hauteskundeetarako mahaikideak hautatzeko zozketa egin da.

4.- 2019/0369 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

2019/0369 dekretuaren berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

5.- 2019KO FINANTZA ETA AURREKONTUEN ARLOKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkateak kontu-hartzaileari hitza eman dio.

Pedro Etxarri kontu-hartzaileak adierazi du Foru Arauak agintzen duela zinegotziek eskubidea dutela hiru hilabetero ekonomia arloko informazioa jasotzeko.

Bestalde, gaineratu du urtarrilean betebeharrak berri bat jaso zutela Foru Aldunditik, non esaten den hiru hilabetero Udala zein egoeratan dagoen informazioa bidali behar zaiela. Beraz, apirilaren 30a baino lehenago bidali behar dela dio Udala zein egoeratan egon den martxoaren 31n.

Udalaren egoerari buruz esan du bera otsailean etorri zela, hau martxoko informazioa dela eta zegoen bezala bidali zutela. Hala eta guztiz, besteak beste, diruzaintzako aurrekontua, hemendik hiru hilabetetara zein egoeratan egongo den Udala, obligazioak eta diru-sarrerak kontutan hartuta jasotzen dela esan du. Orokorrean, Udala lasai egoteko moduan dagoela azpimarratu du.

Andoni Atxegak hitza hartu du eta adierazi du txostenean badela gauza bat ez dutena ulertzen. Amaiera aldera, galdetzen dela dio ea entitateak 2019 ekitaldian indarrean dagoen Plan Ekonomiko Finantzariarik baduen eta erantzuten omen da ezetz.

Kontu-hartzaileak adierazi du hori akats bat dela, gerora jakin zuela. Ez daukala beste eraginik baina hori zuzendu egin behar dela zehaztu du.

2019ko finantza eta aurrekontuen arloko informazioaren berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

6.- 2020 URTERAKO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

Batzarkideek, alkatetzako proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp.zk.: ID.02/2019-0134

Apirilaren 1eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean martxoaren 26ko 52/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2020 urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena, argitaratu da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2020 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen da.



Usurbilgo Udala

Aipatu dekretuaren bigarren puntuan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango direla.

Horietako bat, uztailaren 31a izatea aurreikusten da, Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politikarako Lurralde Ordezkaritzatik jasotako oharrean udal honi jakinarazi zaionez.

Hau guztia horrela, batzarkideek honako erabakia hartu dute aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: 2020ko Santixabel eguna, uztailaren 2a (osteguna) herriko jaieguna izatea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak adierazi du ohiko bilkurak hilaren azkenengo asteartean egiten dituztela, baina jakinda maiatza hilabete berezia izango dela, zehaztu du hauteskundeak baina lehenago pleno bat egingo dutela. Eguna jakinaraziko dela gaineratu du.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:13an eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.